

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2011ko maiatzaren 25a. VIII. urtea. 2.232. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Lau emakume hasi dira lanean Leitzako Sarriopapelen

LABek eta Bilgune Feministak abiarazitako ekimenarengatik kontratatu dituzte **7**

III. Segundo Montes- Aiztondo Senidetze Eguna, igandean

Egun osoan izango dira ekitaldiak; 12:00etan izango da El Salvadorreko ordezkarien harrera **4**

72 lagunek eman dute izena jada Txindoki Bertikalean

Ekainaren 19an izango da proba, eta Larraitzeko langatik gailurrerainoko bidea egin behar da **6**

→ **Tolosa & Co-k Visa txartela aurkeztu du.** Tolosa & Co merkataritza elkartek fidelizazio txartela atera du «herriko merkataritza bultzatzeko». Visa izango da, «geroz eta gehiago erabiltzen delako», eta txartela Tolosa bertako nahiz kanpoko dendetan erabili ahal izango da. Visa Caja Rural de Navarrarekin atera dute. **2**

TOPAk alderdi politikoei emandako hitza betetzeko eskatu die

Hauteskunde kanpainan osasun publikoaren alde azaldu ziren taldeei konpromisoak hartzeko garaia dela esan diete **3**

2011-2012 ikasturterako
AURREMATRIKULA ekainaren 10era

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):
Ite-apainketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):
Estetika

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A ereduak):
Estetika eta Edertasuna (LOE)

GIPUZKOAKO IKASTETXE OFIZIAL BAKARRA. IKASKETAK DOAN
San Ignazio, 25 · Tel.: 943-13 42 23 Fax: 943-89 41 96
DL2291aw@hezikuntza.net · 20800 ZARAUZ

Aska ezazu irudimena zure DISEINATU


ceinpro
TITULAZIO
OFIZIALAK

**ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA
ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN**



Agus Aduriz eta Pedro Tolosa, aurkezpen prentsaurrekoan. I. URKIZU

Irailetik aurrera Tolosa & Co fidelizazio txartela eskuratu ahal izango da

Herriko merkataritza bultzatzeko sortu dute txartela, baina Tolosaz kanpoko dendetan ere erabili ahal izango da

Itzea Urkizu

Tolosa & Co merkataritza elkarteak fidelizazio txartela aurkeztu du, Topic-en. Txartelaren bidez, tolosar bezeroak saritu nahi izan dituzte merkatariek, eta baita inguruko herrietatik Tolosara erosketak egitera etortzen diren bezeroak ere.

Tolosa & Co-ren fidelizazio txartela Visa txartela izatea erabaki dute, «gero eta gehiago erabiltzen delako»; gainera, kanpora joatean ere erabili daitezkeen txartela da Visa. Aukera asko aztertu

ondoren, merkataritza elkarteak Caja Rural de Navarrarekin egin du, azkenik, fidelizazio txartelaren proiektua burutzeko akordioa. Dena den, txartela eskuratu nahi duten bezeroek ez dute bankuz aldatu beharrik izango; merkatariek eurak arduratuko dira hori tramitatzeaz. Horrez gain, ordainketak epetan burutu ahal izango ditu txarteldun bezeroak, eta beharpenak eta sariak irabazi ahal izango ditu.

Txartela merkatariek proposaturiko ideia izan dela azaldu dute, eta udalak bere babesa eman die. Bide honetan, etorkizun hurbil batean gasolindegietan, kiroldegian, aparkalekuetan eta abarretan ere txartela erabiltzerik izango dela nabarmendu dute.

Hala ere, hasiera batean komertzioetan soilik erabili ahal izango da Tolosa & Co-ren fideli-

zazio txartela. Elkarteak lehendakaria den Pedro Tolosak azaldu duenez, 100 establezimenduk baino gehiagok baiezkoa eman diote txartel berriaren erabilerari, eta datorren irailetik aurrera, 300 Visa baino gehiago izango dira eskuragarri herriko dendetan. Txartela doakoa izango da behin betiko.

Funtzioetako alkatea den Jokin Bildarratzek, ekonomiaren egoera txar honi «gauza txikiak ere aurre egin» behar zaiela azaldu du. Tolosan 517 merkataritza gune daude, eta 1.200 pertsona baino gehiagok lan egiten dute sektorean: «Oso sektore garrantzitsua da merkataritza, Tolosako ekonomiarentzat», dio Bildarratzek.

Era berean, merkatariekin egin beharreko apustua «etorkizunerako guztiz estrategikoa» dela nabarmendu du Bildarratzek, izan ere, Tolosako merkataritza sektoreak bat eginda, gaur egungo lehiakor tasunari aurre egin diezaiokela dio. Irun, Donostia eta Zarautz bezalako herrietan fidelizazio txartelarena «oso espezializazioa» izan dela ere aipatu du Jokin Bildarratzek, eta Tolosarentzako ere oso onuragarria izango dela uste du.

Txartela eskatzeko, Tolosa & Co elkartera bertara dei egin daiteke, 943 65 35 78 ra, edo bestela, tolosakomertzio@gmail.com helbidean ere egin daiteke eskaera. tolosa@hitza.info

→ Laburrak

Bertso afaria izango da etzi, Arsenal elkarteak

BERTSOLARITZA > Tolosako Izaskun auzoko Arsenal elkarteak, bertso afaria antolatu dute datorren ostiralerako. Bertsolari gazteak ariko dira afalondon: Julio Soto, Miren Amuriza eta Eneritz Artetxe. Aferia 21:00etan hasiko da, eta Sarasola sagardotegiaren eskutik, sagardoa izango da.

Inmakulada ikastetxean informazio hitzaldiak

OSASUNA > Inmakulada ikastetxeak bi informazio hitzaldi antolatu ditu datozen egunetarako. Gaur, 19:00etan, bularreko minbiziaren prebentzioari buruz ariko dira. Bihar, berriz, 19:30etik aurrera, *Alzheimerra eta inguruan duen eragina* deituriko hitzaldia izango da.

Haur liburutegia itxita egongo da arazoengatik

KULTURA > Arazo teknikoak direla eta, Errota haur liburutegia itxita egongo da datorren hilaren 30a bitarte. Aipaturiko arazoak lehenago konponduko balira, udalak horren berri emango luke.

Zumardiaundiko lorategi berrietan bisita gidatuak egin daitezke

Nazioarteko lorategi jaialdiaren barruan jarritako lorategiak sei hilabetez egongo dira Zumardiaundian

I. Urkizu

Pasa den maiatzaren 14an zabaldu zituzten Zumardiaundiko lorategi berriak. Nazioarteko lorategien jaialdiaren barruan, Tolosa gaiaren inguruan burututako sorkuntzak daude ikusgai bertan.

Parkea zabalik izango da eguneroko, asteleneretik igandera, goizeko 10:00etatik 21:00etara bitarte. Lorategiak ikusteko, bisita gidatuak antolatu dituzte arduradunek. Goizetan bi bisita izango dira: 11:00etan euskaraz, eta 12:00etan gazteleraz. Arratsaldetan, berriz, 18:00etan izango da euskarazko saioa, eta 19:00etan gaztelerazkoa.

Ibilaldia 2011ra joateko autobusa Tolosatik

EUSKARA > Datorren igandean, Ibilaldia ospatuko dute Ondarroan. Hara joateko, autobusa antolatu du Galtzaundik. 09:30ean irtengo dira tren geltokitik, eta itzulera arratsaldeko 19:00etan izango da Ondarroatik. Autobusak 12 euroko prezioa izango du, eta bazkideentzat 10 eurokoa. Izen-ematea, 943 65 50 04 telefonora deituta egin daiteke, edo Galtzaundiren egoitzara joanda.

Maiatza Gorriaren barruko ekitaldiak asteburuan

GIZARTEA > Sanblaspioko Gazte Asanbladak antolatuta, Maiatza Gorriaren barruan hainbat ekitaldi izango dira datozen egunotan. Hasteko, *Alpetan eskalada* proiektioa izango da bihar, 19:00etan, Otsabin. Larunbatean, berriz, hilak 28, *Aralar atzo eta gaur* ibilaldia egingo dute Lizarrutik; 09:30ean jarri dute hitzordua, Otsabitik abiatzeko. Ibilaldiaren ondoren, eguerdiko 14:00etan, bertso bazkaria izango da Amaia Agirre eta Ander Lizarralde bertsolariekin. Bazkaria joan nahi duenak, Denak tabernako zerrendan izena eman beharko du. Ondoren, udalak hortzen berri Gozo-Gozo taldearen eskutik.

Elikagaien manipulatuak txartela lortzeko ikastaroa izango da ekainean

Tolosaldean Ikastn-ek antolatu du ikastaroa, eta txartela eskuratu nahi duen edonork parte har dezake

I. Urkizu

Tolosaldean Ikastn-ek, elikagaien manipulatuak txartela lortzeko ikastaroa antolatu du.

Ikastaroa ekainaren 1 eta 2an izango da, eta goizeko 09:00etatik eguerdiko 12:00etara bitarteko saioak izango dira; sei orduko ikastaroa izango da, beraz. Gaztelera izango da ikastaroaren erabiliko den hizkuntza, eta 25,75 euroko prezioa izango du.

Izen-ematea maiatzaren 27an amaituko da, eta plaza mugatuak izango dira; info@ikastn.com helbidean eta 943 65 11 47 eta 615 77 56 78 telefonoetan eman daiteke izena, eta baita Tolosaldea Lanbide Institutuan bertan ere.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gutunak

Non dago euskara Tolosako hizkuntza eskolan?

Ez dago; hori besterik ez. Tolosako hizkuntza eskolan, berebiziko garrantzia ematen zaie ingelesari, frantsesari, eta datorren urtetik aurrera, Alemaniari, baina ez horrela euskarari. Tolosako hizkuntza eskolan ez dago euskara ikasterik ez eta azterketak egiterik; horretarako, Donostia eta Eibarko hizkuntza eskolak omen daude, baina ez Tolosakoa. Honek ez baitu euskararik eskainiko. Zein da honen guztia-
ren arrazoa? Zergatik herrian bertan eskola izanda, kanpora irten beharra daukagu tolosarrok euskarazko azterketa bat egiteko? Zergatik dira garrantzitsu atzerriko hizkuntzak, baina ez gurea eta hemengo den euskara? Behin baino gehiagotan entzun diot udaletxe honi, euskararen aldeko apustua egingo duela eta normalakuntza eta erabilera bultzatuko dituela. Non dago apustua hori?

Kontua da, udaletxeak debekatu egin duela euskara Tolosako hizkuntza eskolan ezartzea, bere funtzionarioen Udal Euskaltegira joan gaitzen denok, hizkuntza eskolak kompetentzia egingo diolakoan. Ez du, beraz, beste aukerarik uzten: derrigorrean, Euskaltegira joan behar da euskara ikastera, bestela, jai daukagu! Baina, asko gara irakaskuntza publiko eta kalitatezkoaren aldeko apustua egiten dugunak eta euskara, Tolosako hizkuntza eskolan baztertuta egoteak mintzen eta iraintzen gaituenak.

Non dago euskararen aldeko apustua, non aukeratzeko esku-bidea? Tolosan ez, behintzat.
= **Tolosar bat.**

Maikol, Lizartzako ingelesaren, agurra

Joan zen larunbatean Lizartzako *Ingelesak* betirako utzi gintuen, bera zen bezalaxe utzi ere; zuhurki eta abisurik gabe, hilda aurkitu zuten bere etxean.

Michael Allan Cornish duela 30 bat urte azaldu zen lehengo aldiz Lizartzan. San Ferminen usaian etorri zen lehenengo aldiz Igeldoko campingera eta pixkana-pixkana Lizartzan bukatu zuen, orain kontatzeak luze eramango lukeen txirikorden ondorioz.

Oso bizimodu xume eta zuhera egin du geroztik Lizartzan, herrian denek maitatua eta errespetatua izateraino. Lasaia, isila eta oso arrazoi sakoneko gizona izan da inoiz inorekin hitz bat bestea baino altuagoa eduki ez duena. Bere zubi lanari esker (hizkuntza, alegia) Lizartzak badu Erresuma Batuko, Holandako, Norvegiako, Ipar Amerikako... ezagun mordoa. San Fermin festetara etorri eta pixkana-herriko jendearekin harremana egin dutenak.

Gaur, asteazkena, 19:00etatik aurrera herriko plazan, azken agurra egitea pentsatu dute bere lagunak, bera zen bezalako, xumea. Familiakoak, jatorriko lagunak eta noski Lizartzako lagunak.

Dagoen tokitik irribarre sotil batekin egongo da begira, Viva zu! MAIKOL!

= **Xabino San Sebastian.**

**Urrezko Platera Amets tabernako Riañorentzat**

A.I. Tolosa

Herenegun Gipuzkoako Pintxo Lehiaketa jokatu zen Donostian. Gipuzkoako Tabernarien elkarteak antolatutako txapelketara 23 sukaldaririk hartu zuten parte, eta Urrezko Platera eskualdetik aur-

keztu zen bakarrak irabazi zuen, Tolosako Amets tabernako Aitor Riañok, *Txotx* izeneko pintxoarekin. Kupela txiki batean aurkeztu zuen pintxo, eta bertan sagardotegiko ohiko menuaren osagaiak aurki zitezkeen, neurri txikira egokituta.

Iragarki laburrak**ESKAINTZA**

■ **Klase partikularrak.** Psikopedagogian eta hezkuntza berezian tituludunak LHko eta DBH1 eta DBH2ko ikasleei klase partikularrak emango lizkieke.

Andoain, Aduna, Villabona, Zizurkil, Asteasu edo inguruetako herrietan. Interesatuak deitu ondorengo telefono zerbaki honetara: 669 00 56 71.



TOPAK maiatzaren 14ko manifestazioaren balantzea egin du. M. UGARTEMENDIA

Osasun publikoaren alde azaldu diren alderdiei hitza betetzeko eskatu die TOPAk

Sinadura bilketak eta manifestazioak izandako erantzunarekin «oso arro» sentitzen dira

Asier Imaz

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) koordinakundeak maiatzaren 14ko manifestazioaren balantzea egin du. Bertan ikusitakoarekin gustura agertu dira TOPAko kideak: «Erabat publiko izango den osasunaren alde borrokatzen duen herri mugimendu baten indarra daukagu».

Balantzea egin aurretik, eskerak eman nahi izan dituzte: «Dendariei, prentsari eta osasun publikoaren alde sinatu duten guztiei esker ona adierazi nahi diegu. Eta nola ez, manifestaziora hurbildu ziren Tolosaldeko bizila-

gun guztiei». Koordinakundearen esanetan, manifestazio jendetsuan eskualdeko herritarren aldarrikapenak oso argi gelditu ziren: «Mobilizazioan, osasunaren eskubide umibertsala defendatzeko, adin, kolore eta eskualdeko herri desberdinetako jendea elkartu zen aspaldi ez bezalako manifestazio jendetsuan. Eguraldi txarra egin arren, jubilatua, gazte eta umedun familiak herriaren ahotsaren indarra erakutsi zuten, Eskualde Ospitale Publiko bat eta Espezialitateetako Ambulatorioa berrindartzeko aldarrikapena egin ez».

Sinadura bilketan lortutako emaitzekin eta manifestazioak izan zuen erantzunarekin «oso arro» sentitzen direla ere azaldu dute: «Jasotako 12.000tik gorako sinadurak, eta manifestaziora bertaratu zen jendetza, lorpen handiak dira eta oso arro sentitu gaitzeko, hala ere, manifestazioa

ez da gure lanaren bukaera, borrokaaren hasiera baizik. Badaki-
gu erabaki asko hartuta daudela dagoeneko, eta ulergaitza izan arren, alderdi politiko batzuk gauza bat esan dutela hemen Gasteizen kontrakoa sinatu ondoren».

Konpromisoak hartzeko garaia

Orain arte lortu dutenak jarraitzea izatea dute TOPAko kideek. Horregatik, hiru konpromiso hauek hartuko dituztela adierazi dute: «Eskualde Ospitale Publiko bat eta Espezialitateetako Ambulatorioaren berrindarpena lortzeko lan egiten jarraitzea; osasun publikoaren alde azaldu ziren alderdiei, bai udaletxeetan bai Eusko Jaurlaritzan, mahai inguruan esandakoa bete dezaten exijitzea, eta Tolosaldean osasun sistema mixtoa ezarri ez dadin borrokatzea».

www.tosaldea.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago
ezagutu gure webgune berriak

www.ibarraldea.hitza.info • www.alegaldea.hitza.info • www.anoetaldea.hitza.info •
www.villabona-aiztondo.hitza.info • www.leitzaldeko.hitza.info • www.tolosa.hitza.info

Javier Marques Euskal Herriko energia berriztagarriez ariko da, gaur

Hitzaldia 19:00etan hasiko da Atxulondo kultur etxean; bihar ipuin kontalari ariko dira Otaño ikasleak

E. Maiz Zizurkil

Maiatza Saltsanen baitan, gaur 19:00etan Atxulondo kultur etxean hitzaldia izango da. Javier Marques izango da hizlaria, eta *Energia Berriztagarriak Euskal Herrian* hitzaldi eskainiko du.

Energiaren Eusko Erakunde-kidea da Marques, eta hauen lan ildo nagusienetakoa, energia iturri berriztagarriak sustatzea da: eguzki energia, energia eolikoa, energia minihidroelektrikoa, biomasa energia, itsas energia edo energia geotermikoa. Energia berriztagarrien ezaugarri nagusiak hauek dira: autoktonoa, agortezina, petrolioaren eratorrien ordezkoa eta ingurumena errespetatzen duena izatea.

Ipuin kontalari saioak

Bihar, hilak 26, Pedro Mari Otaño eskolako ikasleek ipuin kontalari saioak egingo dituzte. Segundo Monteseko eskolako dirua biltzeko izango dira, eta naturaren defentsaren inguruko ipuinak izango dira. 15:00etan hasiko dira saioak eta liburutegian izango dira.

Udaleku irekietarako begiraleak behar dira Anoetan eta Iruran

Begirale izan nahi dutenek, eta bertan parte hartu nahi duten haurrek izena eman beharko dute

Eneritz Maiz

Anoetako eta Irurako Udalek, Udaleku Irekiak antolatu dituzte aurtengo udarako. Horretarako begiraleak behar dituzte eta deialdiak luzatu dituzte. Era berean, bertan parte hartu nahi duten haurrek ere izena eman beharko dute.

Anoetaren kasuan, begiralearen lana honakoa izango da: HH1etik aurrerako umeekin jolastu, txangoak prestatu, jaiak antolatu,... Lanaldia, uztailaren 4tik 15era, asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara izango da. Bi egunetan irteerak egingo dira.

Interesatuz gero eta 18 urteak beteak izanez gero, curriculumua udaletxean edo liburutegian aurkeztu beharko da. Edo posta elektronikoz bidali daiteke tsoto@anoeta.net helbidera. Lehen tasuna anoetarrei emango zaie. Izena emateko epea, ekainaren 3an, ostirala bukatuko da.

HH1 eta LH6. maila bitarteko haurrentzat izango da; uztailaren 4tik 15era, 10:00etatik 13:00etara.



Irurako Udaleku Irekietan, San Ferminetan entzierroa irudikatu zuten. HITZA

Bi irteera egingo liriteke: Hernaniko ur parkera eta Txindokiko Itzalaren abentura parkera. Kostua, 55 eurokoa da. Matrikula kontu korrontetik kobratuko dute. Murrizketak izango dituzte: famili ugariak (%25a) eta murrizpen bereziak diru-sarrera baxuak dituztenek.

Goiz pasa Iruran

Irurako Udalak Goiz Pasa udaleku irekietarako, begiraleak kontratatu behar ditu. Ekainaren 22tik uztailaren 29ra arte izango da lau orduz aritzeko.

Parte hartu ahal izateko beharrezkoa da 18 urte beteak izatea eta euskaraz jakitea (EGA maila edo baliokideren bat). Hautagaien aukeraketan, kontuan hartuko da Irura ezagutzea, aisialdi-

ko edota hezkuntzako ikasketak edukitzea eta eskarmentua izatea arlo horietan.

Interesatuak curriculumak eta gaitasunen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte ekainaren 3ra bitartean udal bulegoetan.

Haurren kasuan, izen ematea maiatzaren 30ean irekiko dute eta ekainaren 10ean amaituko da. 2000. urtetik 2008. urtera bitartean jaiotako haurrei zuzendua izango da. Bi txanda prestatu dituzte, ekainaren 27tik uztailaren 12ra, bata, eta uztailaren 13tik 29ra, bestea. 10:00etatik 13:00etara izango da, baina zazpi urte arteko haurrentzat 09:00etatik 10:00etara zaintza zerbitzua izango da. Txanda bat 30 euro eta bi txandak 60 euro ordaindu beharko dira. Murrizketak ere egongo dira.

→ Laburrak

Binakako esku pilota, pala eta frontenis txapelketa

VILLABONA › Behar Zana Kirol Elkarteak herriko festetarako Villabonakotxapelketa prestatzen du. Partidak, binakako esku pilota, pala eta frontisen izaten dira. Txapelketan parte hartu nahi duenak, federatu gabea izan beharko du. Izena emateko epea hilaren 30ean bukatuko da. Izena eman nahi duenak Behar Zana Kirol Elkartera joan beharko du, asteleheneetik ostiralera 19:00etatik 20:00etara.

'XL Town' antzerkia, etzi Gurea Antzokian

VILLABONA › Ostiralean, hilak 27, Gurea Antzokian antzezlanak ikusteko aukera izango da. Kasu honetan, *XL Town* antzerkia eskainiko dute, eta Pikor Antzerki Konpainiaren eskutik izango da. Sarrera doan izango da, eta 22:30ean hasiko da.

Sanjoanetako III. Mus Txapelketan izen-ematea

TOLOSA › Iturriza Elkarteak, San Joan festak direla eta, San Joan III. Mus Txapelketa antolatu du. Txapelketa ekainaren 23an izango da, eta 10:30ean hasiko da. Lau erregetara eta zortzi erregetara izango da. Jokatu nahi duenak, izena ekainaren 20a baino lehen eman beharko du. Asteleheneetik ostiralera, Iturriza Elkartearen bertan 10:00etatik 12:00etara izango da aukera. Txapelketaren modalitatea azkarra izango da.

Euskarazko komunikabideak **DENON BEHARRA**

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz

III. Segundo Montes-Aiztondo Senidetze Eguna ospatuko dute

Igandean Aduna, Asteasu, Zizurkil eta Amasa-Villabonako herriek, egun osoko festa izango dute

E. Maiz Amasa-Villabona

Azken urteotan Zizurkil, Aduna, Asteasu eta Amasa-Villabona herriak El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin senidetuta daude. Aurtengoa III. Senidetze Eguna izango dute, eta Amasa-Villabonan ospatuko dute. Iaz, lau udalerriek senidetzearen inguruko hitzarmena sinatu zuten.

Herritar eta inguruko guztiak gonbidatuta daude Senidetze

Egunean parte hartzea, eta urtero moduan, El Salvadorreko Segundo Montes Komunitateko ordezkariak ere, Aiztondon izango dira. Egun osoko festa antolatu dute.

Hasiera, haurren jolasekin ha-

siko dute, eta jarraian, harrera instituzionala eta herriarena izango dira. Txupinazoa botako dute, eta buruhandiak kalera aterako dira. Bazkaria, pailazoak eta musikaririk ez da faltako eguna bukatzeko.

↓ Egitaraua

HILAK 29, IGANDEA

- **11:00etan.** Patinetako ginkana. Errebote plazan.
- **12:00etan.** Villabona, Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo udalordezkariak harrera instituzionala egingo diete Segundo Monteseko ordezkariak.
- **12:30ean.** Herritarren harrera, txupinazoarekin. Pregoia, Ond-

do Gazte Asanbladaren eskutik izango da.

- **13:00etan.** Buruhandiak.
- **14:30ean.** Bazkaria izango da, bertsolari eta trikitalariek.
- **17:00etan.** *Bizitza Zirkuan*, Potxin eta Patxinen eskutik, Errebote plazan.
- **20:30ean.** Kontzertua eta berbera izango dira Errebote plazan.

Bertsolari Txapelketan Gorostarzu eta Iguaran lehengusuen txanda

Amezketako saioan Beñat Iguaran ariko da; Oihana Iguaran eta Iñigo Gorostarzu Usurbilen izango dira

R. C. Tolosa

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren bi saio izango dira asteburu honetan.

Larunbatean Amezketan eta Usurbilen izango dira kanporaketak, eta igandean Gabiria eta Are-

txabaletaren txanda izango da. Azken bi herrietan ez dira Tolosaldeko ordezkariak izango, bai ordea Amezketan eta Usurbilen, hauetan Beñat eta Oihana Iguaran lehengusua, eta Iñigo Gorostarzu izango dira.

Amezketako saioa

Larunbateko Amezketako goizeko saioan Beñat Iguaran ariko da Ibai Esoain, Kikel Olaizola, Antton Fernandez, Gorka Etxeberria eta Iñaki Apalategirekin batera. Arratsaldean aldiz, Andoni Otamendi, Andonio Goitia, Iñigo

Izagirre, Alaia Martin, Eñaut Uriarte eta Eneritz Arzallusen txanda izango da.

Usurbileko saioetan Iñigo Gorostarzuk eta Oihane Iguarane hartuko dute parte.

Gorostarzu goizez ariko da Beñat Alberdi, Unai Gaztelumendi, Zigor Iriondo, J. Oiarzabal *Xenpelar*, eta Ibon Urdangarinekkin batera.

Arratsaldean Oihana Iguarane Jokin Uranga, Egoitz Eizagirre, Asier Sasieta, Amaia Iturrioz eta Agin Rezola izango ditu aurkari.

Roberto Jauregiren omenezko Hegats Txapelketa, larunbatean

Igarondo Urpekoak taldeak antolatzen duen igeriketa lehiaketa Usabalen izango da egun guztian zehar

R. C. Tolosa

Aurten ere Igarondo Urpekoak taldeak Roberto Jauregiren omenezko Hegats Igeriketa Txapelketa ospatuko du Usabalgo kiroldegian, larunbatean.

Txapelketa goizez eta arratsaldean izango da; goizean 10:00etan hasiko da, eta arratsaldean 16:00etan.

Taldeak 30 urte betetzen ditu aurten eta ondorioz Espainiako igerilari infantil eta kadete onenak bilduko dituzte Tolosan.

160 igerilari, 17 tolosarrak

IX. jardunaldi honetan Espainiako bost erkidegoko 160 igerilari ariko dira uretan, bi maila desberdinetan banatuta, 12-13 urtekoak alde batetik, eta 14-15 urtekoak, bestetik.

Parte hartzaileen artean 17 tolosar izango dira, eta entrenatzaile-

leak emaitza onak espero ditu lehengo urteko denborak hobetzeko eta proba batzuk irabazteko.

Denetariko probak


Denetariko probetan lehiatuko dira igerilariak, 25 metro apnea proba motzena, eta 400 urgainetik proba luzeena izango direlarik.

Espainiako erkidego bakoitzak bere selekzioa ekarriko du Tolosara, eta antolatzaileek argitu dutenez, indartsuenak katalunarrak eta valentziarrak izango dira, baino euskaldunen artean ere badago aurka egingo dien igerilari bat baino gehiago.

Bukatzeko lehiaketako antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete laguntzaileei: Tolosako eta Ibarako udalei, Gipuzkoako Urpeko Ihardueren Federazioari, Villanueva, Copytec eta Kutxa.

Egunari amaiera emateko Igarondo Urpekoaren urteurrena ospatzeko afari bat antolatu dute Kasinon elkartean, urte hauetan zehar taldean igeri egin dutenentzat.

Antolatzaileek egun polita oparo diote igerilari gazte eta ez horren gazteei.



Oihana eta Beñat Iguaran ariko dira asteburu honetan. HITZA



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Otordua

Ñañarri Jatetxean
2 lagunentzako bazkaria edo afaria



Larraitz auzoa • Abaltzisketa • Tel.: 943-65 58 15
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 Otordua

Kako Jatetxean
2 lagunentzako bazkaria edo afaria

Herriko plaza, 7 • Berastegi • Tel.: 943-68 30 59
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



3 Otordua

Ostatu Hernialde Jatetxean
2 lagunentzako bazkaria edo afaria



Hernialde • Tel.: 943-65 24 96
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

4 Ile mozketa

Mikel Izagirre
ileapaindegian ile mozketa

MIKEL IZAGIRRE
ileapaindegia
www.lasonet.com/mikel



Gorosobel, 27 behea • Tolosa • Tel.: 943-67 52 49
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

2=1 kupoa

MOZTU eta erabili zure harpidedun txartelarekin batera*

DENAK TABERNA
Igaralde 4 • Tolosa • Tel.: 943 671 627
2 = 1 kupoa ogitartekoetan
Astelehenetik ostegunera

Ogitartekoak 2=1
batek ordaindu eta bigarrengeak doan

IZEN-ABIZENAK

HARPIDEDUN KODEA

ERABILITAKO EGUNA

ARGITARATZE EGUNA: 2011-05-24
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

*Harpidedun bakoitzak kupoi bakarra aurkez dezake, ezin dira metatu.

harpidedunen
TXOKOA hitza info



Lasterkari bat iazko probaren hasieran, Txindokiko gailurra lainoepen duela. Eskuineko argazkian, Didier Zabo eta Nerea Amilibia, I. Txindoki Bertikalako irabazleak. A. BELAUNTZARAN/HITZA

II. Txindoki Bertikala proban parte hartzeko aukera zabalik dago

Ekainaren 19an izango da lasterketa; federatuta dagoenak 15 euro ordaindu behar du, eta ez dagoenak 20 euro

Imanol Garcia Abaltzisketa

Aurten berriz animatu dira Abaltzisketako lagun talde bat Txindoki Bertikala proba antolatzen. Ekainaren 19an izango da, eta dagoeneko izena eman daiteke www.blogak.com/txindokibertikala webgunean. Orain hiru bat

urte Txindokira igotzeko apustu giroa izan zen Abaltzisketa inguruan, eta horretan zebiltzanak elkartu ziren egun batean ateraz zen lasterketa antolatzeko ideia.

Iaz 152 gizonetako eta 8 emakumezko eman zuten izena. Aurtengo probarako, atzo bitartean 72 lagunek eman dute izena.

Antolaketa lanak egiteko, Euskal Mendi Federazioarekin zein beste igoera bertikalak antolatzailerekin hitz egiten dute. Txindokiko proba baliagarria da igoera bertikalaren euskal zirkuiturako. Aurten lau proba daude: Anbotokoa, Beriainekoa, Iza-

rraitzkoa eta Txindokikoa. Eskualdekoa da guztietan lehenengoa egutegian.

Patxi Caminos da II. Txindoki Bertikalaren antolatzaileetako bat. «Proba gogorra da. Beste igoeretatik Anbotokoa ezagutzen dut eta agian Txindokikoa baino zertxobait gogorragoa izan daiteke».

Tximista aldapatik

Larraitzeko langan hasi eta Txindokiko gailurreraino iristen da proba. Iturriraino, Txindokira igotzeko ohiko bidetik joaten dira lasterkariak. Hortik Tximista ize-

neko aldapatik igotzen dira. Hori da tarte gogorrena. Guztira ia lau kilometro egin behar dituzte lasterkariak, eta 931 metro igo.

Korrikalariak ez dira denak batera ateratzen, erlojupearen kontrako proba baita. Beraz, banaka ateratzen dira minutu erdiko tartearekin. Iazko irabazleak Didier Zago gizonetakoan eta Nerea Amilibia zizurkildarra emakumezkoetan izan ziren. Zagok 34 minutu eta 33 segundo behar izan zituen lasterketa burutzeko. Amilibiak 42 minutu eta 37 segundo behar izan zituen. Caminosek azaltzen duenez, «denbora

↓ II. Txindoki Bertikala

- **Eguna.** Ekainaren 19a.
- **Hasiera ordua.** 10:00etan.
- **Dortsalak jaso.** 08:30etik.
- **Irteera.** Larraitzko langa.
- **Helmuga.** Txindokiko gailurra.
- **Distantzia.** 3.878 metro.
- **Desnibela.** 931 metro.
- **Izen-ematea.** www.blogak.com/txindokibertikala.
- **Prezioa.** 15 euro federatuek eta 20 euro federatugabeek.

ona da Zagok egin zuena. Iaz berak irabazi zuen euskal zirkuitua». Hala ere, beste erreferentzia bat ere aipatzen du: «Juan Mari Garinek du, berez, denborarik onena egina. Bere garaian Larraitzko baselizatik aterata Txindokiko gailurreraino 33 minutu eta zerbait egin zuen».

Sahararentzako biltzen ari dira elikagaiak eta produktuak egunotan

Gizarte zerbitzuen bulegoetan eta eskolan ari dira bilketa egiten, eta azken eguna hilaren 31 da

I. Garcia Alegia

Herri sahararren aldeko euskal karabana kanpaina abian da. Egitasmoaren helburua saharar errefuxiatu kanpalekuetara eramateko elikagaiak eta produktuak biltzea da. Dagoeneko bilketa egitean ari dira Alegian. Hain

justu, udaletzeko gizarte zerbitzuen bulegoetan eta eskolan egiten ari dira bilketa. Kontuan izan behar da astelehenetan ez dela irekita egoten gizarte zerbitzuen bulegoa. Hilaren 31n amaituko da epea bertara elikagaiak eta produktuak eramateko.

Beste urteen antzera, ondorengoak dira biltzen ari direnak: arrosa, lekaleak, pasata, hegalezko oliotan, sardinak oliotan, azukrea, konpresak, olioia eta helduentzako pixoihalak. Alegiako Udalak dei egiten die herritarrei kanpaina horretan parte hartzeko.

Udalak begiraleak behar ditu aurtengo udako ludotekarako

Interesatuek curriculuma eraman behar dute kultur etxera ekainaren 3a baino lehen

I. Garcia Alegia

Alegiako Udalak deialdia egin du aurtengo udako ludotekarako begiraleak kontratatatzeko. Interesa dutenek, curriculuma eraman behar dute Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxera ekainaren 3a baino lehen.

Begirale gisa aritu nahi dutenek euskaraz jakin beharko dute ezinbestean. Horrez gain, zenbait puntu kontuan hartuko dira aukeraketa egiterakoan. Alde bateatik, Alegiakoa izatea edo Alegiako umek ezagutzea. Bestetik, astialdiko begirale titulua izatea edo haurren hezkuntzarekin zerikusia duen bestelako titulazioa. Azkenik, haur eta gazteen astialdian eskarmentua izatea.

Informazio gehiago jaso nahi dutenek 943 65 46 98 telefonora deitu dezakete edo kultura@alegiadala.net posta elektronikora idatzi.

Leitzatik Igantzira arteko irteera antolatu dute mendiko bizikletan

I. Garcia Leitza

Mendibil Mendi Taldeak mendiko bizikletan irteera antolatu du hilaren 28rako, datorren larunbatean. Leitzatik Igantzira egingo dute ibilbidea. Horretarako azken eguna gaur da. 30 euro ordaindu behar dira, 25 euro Aurrea elkarteak bazkideek. Prezioan sartzen da bazkaria, itzulerako bidia eta bizikleten garraioa.

Gutunak**Giza eskubideak non?**

Biharamuna da eta oraindik negarra begietan dugula esnatu gara.

Atzoko eguna oso gogorra izan zen gure familia eta herriarentzat. Bezperan jaso genuen berri tristea: «Izaba Luixita, Pelloren ama, hil da».

Bizilegea. Gure samina, ordea, bikoitza zen. Bata mingarria, baina, onargarria. Bestea, aldiz, onartezina.

Gure ama, amona, senidea, izaba,... izateaz gain, Pelloren ama da, eta Pello ez da ama bizirik ikustera iritsi.

Gelditzen zitzaigun itxaropen bakarra, zerraldo ere, Pellok bere ama agurtzeko aukera izatea zen.

Bizilegea? Egunean zehar baimenak lortu eta gure itxaropena errealitate bihur zitekeenaren argi izpia zabaldu zitzaigun. Inozoak gu!

Hileta ordua iritsi eta ez zegoen Pelloren berririk «bidean zela» esaten ziguten.

Baina ez zen iristen. Bertaratu ginen guztion artean, amorrua eta samina areagotzen ari zen. Lur ematera abiatu ginenean hilerrian topatuko genuelakoan geunden. Baita zera ere! Alferrikakoak izan ziren errepidera begira egindako minutu luzeak. Ez zen inor agertu.

Tarteka, egun guztian zehar bezalaxe, patrolak agertzen ziren, agian gu urduri jartzeko helburuarekin. Amorrux eta tristoraz beteta itzuli ginen herrira, baina itxaroten jarraitu genuen.

Azkenean, gaueko hamarretan ekarri ziguten Pello etxera. Familiartekoak etxean, herria kanpoan.

Ordu erdi baino ez ziguten utzi

Pello gure artean. Egoera hunkigarria bezain latza gertatu zitzaigun.

Gizatasun zantzu guztiak apurtuta gelditu ziren. Une txiki batean ere ez zizkioten esku burdinak kendu, ez bere seme txikia besoetan hartzeko, ez eta besarkada bat emateko ere. Bizilegea?

Gainera, etxe barruan ere bost 'zaintzaile' zituela egon behar izan genuen. Egoerak egoera, jasotako berotasuna itzela izan zen.

Gertaerak hauek izanik, honako galderak datozkigu burura: inarrizko giza eskubideaz ahoberoa dabilzan guztiei, egoera honek ez al ditu giza eskubide guztiak apurtzen?

Seme batek, ama hilda ere, agurtzeko eskubiderik ez izatea ez al da giza eskubideen urraketak? Eta aitak semea besarkatzerik ez izatea?...

Gure sentimenduekin jokatzen dute, mina ematen saiatzen dira, baina ez dugu inoiz duintasunik galduko. Guk ere sufritzen dugu, negar asko egiten dugu, baina gure presoak ez ditugu inoiz bakarrik utziko, eta gure berotasuna eta maitasuna iristeko lanean jarraituko dugu.

Pello, jaso ezak gure maitasun guztia, gure indar guztia. Badakik hire amak zainduko huela, eta dagoen lekutik indarra bidaliko digula guztioi. Batez ere, bere seme 'ume' kuttunari. Bukatzeko, mila-mila esker Lizartza eta inguruko herrietatik hurbildu zineten guztioi. Beste behin ere elkartasun uholde hori sentitu genuen eta hori ez dute inoiz geldiaraziko.

Animo bada eta eutsi goiari, lortuko dugu eta!

■ **Belen Zabala Olano**, Pelloren familiaren izenean.



Bilgunek eta LABek abian jarritako ekimenean bildutako curriculumak entregatu dituzte Sarriopapelen. HITZA

49 emakumek euren curriculumak eman dituzte Sarriopapel enpresara

Sarriopapelek jarrera «baikorra» azaldu duela, eta jada 4 emakume bertan lanean hasi direla esan du Bilgunek

Maier Ugartemendia Leitza

Leitzaldeko 49 emakumek euren curriculumak entregatu zituzten, ostiralean, Sarriopapel enpresan, eta jada erantzunak jasotzen hasi dira.

Leitzaldeko Bilgune Feministak eta LAB sindikatuak herrian bigarren sektorean lan egin nahi zuten emakumeen curriculumak biltzeko ekimena jarri zuen martxan, maiatzaren hasieran.

Ekimen honekin emakumek «lan duina izateko eskubidea» dutela, eta enpresetan lan egiteko «aukera berak izatea» aldarrikatu nahi izan dute.

Emakumek «herrian lan egiteko eskubidea» dutela eta «herrian lan egin nahi dutela» ere adierazi nahi izan dute.

Lau emakume lanean

Bilgune Feministak eta LAB sindikatuak Sarriopapel enpresan lan egiteko curriculum bilketaren balorazio bat egin du, eta bertan adierazi dute Sarriopapel enpresak «emakumeak kontuan hartu» dituztela, eta emakumeen kontratazioen inguruan «jarrera baikorra» agertu dutela.

Curriculumak banatu zituzten

egunean bertan, hau da, ostiralean, «emakume batzuei deitzen hasi ziren, Sarrion bertan lanean hasi zitezene»; eta, jada herriko lau emakume hasi dira lanean bertan.

Orain jarraipena egin beharko dela, baina «albiste pozgarria» dela baieztatu dute Bilguneok eta LABekok.

Gainera, guzti hau «borrokak eta aldarrikapenak balio duenaren adierazle» eta «mobilizazioetatik garaipenak etortzen direnaren adierazle» direla esan dute.

Azkenik, «eskerrak» eman nahi izan dizkiete Leitzaldeko emakume guztiei, eta «elkarren arteko indarrak» beraien helburuak lortuko dituztela ere gogorazte diete.

Hilberriak**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



JESUS RODRIGUEZ TORRES jauna

Agur lagun



Sagardo Egunaren Antolakuntza Batzordearen partetik

ERRETERIA-ORERETAN, 2011ko maiatzaren 25ean



MICHAEL ALLAN CORNISH
'INGLESA'



Maiatzaren 2lean hil zen, 62 urte zituela.
- Goian bego -

*How many roads must a man walk down
before you call him a man?
The answer, my friend, is blowin' in the wind,
the answer is blowin' in the wind.*

Oharra:

**GAUR 11:00etan Tanatorio Funeraria ORIAN egingo da errusketak
GAUR 19:00etan azken agurra egingo zaio LIZARTZAKO PLAZAN**

LIZARTZAKO LAGUNAK

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazte da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoeta/leitza@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza/leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitza/Leitza beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Jolastoki «berritzailea» Tolosako Sortzez Garbia plazan

Gutxi gorabehera hilabetez lanean aritu eta gero orain gutxi ireki dute; zorua 'childsplay' erakoa da

R. C. Tolosa

Hilabete inguru lanean aritu eta gero zabalik dago jada, Sortzez Garbia plazako jolastoki berria. Lurkoi enpresa arduratu da lanak gauzatzear. Arduradunen hitzetan, parkea «berritzailea» da, eta zorua childsplay erakoa da, hau da, Foru Etorbideko jolastokian dagoen material bera duena. Egitura guztia metalez eta sokez egina dago. Gehienezko 4,5 metroko altuerako hiru egiturez osatua dago, eta hirurak lotuta daude. Gehienezko luzera berriz, 26 metrokoa da. Aurrekontua 240.000 euro gehi BEZa izan da.

Diseinua

Udaleko arduradunek argitu dutenez, «multzo konplexu bat diseinatu da, non elementuak barreiatu gabe, haurrek, gauzak elkarbanatzeko, elkarri eragin, eta taldeko jokoa sustatzeko aukera dagoen, gizarte portaerak bultzatzearekin batera».

Era berean, nabarmendu behar da jolastokian lurretik gertu dauden elementu horizontalak jarzteaz oso garrantzitsua dela, hauek minusbalotasun motoreak dituzten haurrentzat egokituak baitaude. Honela, batzuek besteekin jolasteko aukera dute, gune bereziak sortu beharrik gabe.



Jolastoki berezia da Sortzez Garbia plazan dagoena. I.GARCIA

Agurrak



Urte askoan! Ekiñe (Lizartza).

Zorionak biharko partez, marimatraka!
6 muxutxo potolo ta ongi pasa zure egunean.



Urte askoan!

Nerea Irazusta Aristi. Bihar 8 urte.
Muxu handi bat familiaren partetik.

Agenda

DEIALDIK

- **Berastegi.** Guraso elkarteak antolatutako *Energia berritza-garria nire etxean nola sartu* jardunaldien barruan, *Eneagrama, norbera eta besteak ezagutzeko psikologia* hitzaldia gaur, 19:00etan eskolako ganbaran. Lori Thompsonen eskainiko du hitzaldia, gazteleiaz.
- **Leitza.** XXXIV. Kultur Aroaren barruan, *Urrezko millak, bidaia hitzaldia* gaur, 20:00etan Aurreran. Fermin Aramendiak eskainiko du hitzaldia. Larunbatean Gazteen Eguna: 14:00etan bazkaria; 18:00etan kalejira; 19:00etan malabare ikuskizuna plazan; 20:00etan batukada; 21:00etan luntxa; eta 23:00etan Hidro eta Vomito taldeen kontzertuak.
- **Tolosa.** Sanblaspioko Gazte Asanbladaren Maitatza Gorriaren barruan, *Alpeetan eskalada*

proiekzioa bihar, 19:00etan Otsabin.

■ **Albiztur.** Kultur Astearen barruan, etzi, hilak 27, 18:00etan udaletxeko hitzaldien aretoan Angel Magoaren *Muykishow*. Larunbatean Gesaltzara ibilaldia egingo dute, eta izena udaletxean eman behar da.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

egin zaitetz harpidedun!

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•PK:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

SALESIANOS urrieta
SAESIARRAK

**LANBIDE HEZIKETA
FORMACIÓN PROFESIONAL**

Ofiziu grafikoa, Inprimategia, Sargailua, Makinaria, Zirkonariak, Zirkonariak
Diziplina Grafikoa, Inprimategia, Sargailua, Makinaria, Zirkonariak, Zirkonariak

Lasituen hutsik auzera
puertas abiertas

zatoz ven
Eramangarri baten
Zozketa

maiatzak 28, 10:00-13:00
28 de Mayo, 10:00-13:00

www.salesianosurrieta.com